



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

## **PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA**

### **Urtarrilaren 26tik otsailaren 11ra bitartean 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasea**

Udalak 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasea abiatuko du bihartik, ostirala, urtarrilak 26, eta otsailaren 11ra bitartean; bertan onartutako zortzi proiektuak lehenetsiko dira. Udal teknikariek aztertu ondoren, horiek guztiak, zortziak, interes orokorrekoak izanik, izan ziren ekarpen nagusiak lehenengo fasean. Gainontzeko guztiak, dagokion prozesu parte-hartzailean (PMUS, Getxo Txukun, Thinking Fadura, Getxo Lagunkoia...) edo, euren informaziorako, udal arlo ezberdinetara bidali dira. Baten bat prozesutik at geratu da interes orokorrekoa ez izateagatik edo jada egiten ari den jarduera bat izateagatik.

*Amaia Agirre Komunikazio eta Herritarren Partaidetzarako zinegotziak gogoratu duenez "joan den irailean, 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasean, Getxoko auzokideen 583 ekarpen jaso ziren. Ekarpen eta iradokizunok udal langileek teknikoki eta ekonomikoki aztertu zituzten eta, azkenik, erabaki zen zeintzuk sar zitezkeen 2018ko aurrekontuetan. Zortzi proiektu aukeratu ziren, bideragarriak, ekonomikoki jasagarriak, auzo ezberdinen arteko oreka erakusten dutenak eta getxotar guztien onurarako izango direnak. Bigarren fase honetatik irtengo dira azkenean –herritarrek balioetsi ondoren– zeintzuk egingo diren 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen diru-sail horren kontura, betiere gehienez milioi bat euroko kostua izanik".*

### **Lehenestea**

Orain, herritarrek hautatutako proiektu **GUZTIAK** baloratu eta puntuatu beharko dituzte (zortziak, euren ustez garrantziaren arabera):

- Areetako Geltokia plaza egokitzea (Xake plaza)
- Bidegorrien sarea handitzea eta hobetzea
- Irisgarritasuna hobetzea Aiboako geltokitik dagoen desnibela murrizteko igogailu bat jarritz
- Udalerriko hainbat lekutan komun publikoak jartzea
- Parkeak eta guner berdeak hobetzea
- Gazteentzako ekimen gehiago
- Bertoko ekonomia sustatzeko jarduera gehiago
- Turismoa sustatzea



**Getxo**  
*bizi ezazu*

## Nola parte hartu

Honela parte hartu ahal izango da:

1. Inprimakiak betez eta entregatuz Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan eskura jarriko diren kutxetan.
2. Proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektronikoko honetara bidaliz: [gobernuirekia@getxo.eus](mailto:gobernuirekia@getxo.eus)
3. Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez: [www.getxo.eus/gobiernoabierto](http://www.getxo.eus/gobiernoabierto)
4. Inprimakia betez eta sartuz Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruan horretarako jarriko diren postontzietan.
5. Informatzeko jarriko diren karpetara hurbilduz hurrengo egunetan: urtarrilaren 31n Areetako Geltokia plazan, otsailaren 1ean Bidezabalgo metro geltokitik hurbil dagoen plazan, eta otsailaren 9an Algortako Geltokia plazan. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

## Lehenengo fasearen emaitzak

2018ko parte-hartze izaerako aurrekontuetarako lehenengo fasea 2017ko irailaren 15etik urriaren 1era bitartean egin zen eta horretan Getxoko herritarrek 583 proposamen aurkeztu zituzten, 2016an baino 93 gehiago.

Aurkeztutakoaren artean, behar bezala betetako 332 galdetegi onartu ziren: 226 paperean eta 106 *online*. 202 emakumezkoek bete zituzten eta 130 gizonezkoek; hau da, guztira 583 proposamen eta gehienek ondoko zortzi udal arloekin zuten zerikusia: Hirigintza, Herri Lanak eta Zerbitzuak, Ondarea eta Etxebizita (170); Ingurumena (159); Kultura, Euskara eta Gazteria (62); Getxo Kirolak (52); Gizarte Zerbitzuak eta Interbentzioa Komunitatean (43); Ogasuna, Ekonomia Sustapena eta Giza Baliabideak (42); Zerbitzu Orokorrak, Udaltzaingoa, Babes Zibila eta Bide publikoa (28) eta Komunikazioa, Herritarrentzako Arreta, Gardentasuna eta Herritarren parte-hartzea (2). Beste 24 proposamen udal eskumenekoak ez direnak izan ziren.

**\* Hautatutako proposamenen eta horiek egiteko aurrekontuaren aurreikuspenaren koadroa erantsita.**

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.